


Eguzkiaren urrezko odola

Hasi da. Abian jarri da txotxeko denboraldia. Atzo, urtarrilak 14, San Sebastian eguna baino lehenagoko azken ostiralean ireki zituzten ateak Astigarraga eta inguruetako sagardotegiak. Honenbestez, datozen urteetarako sagardogileen asmoa da egun berezi honen aurreko ostiralean finkatzea denboraldiaren basiera. Txotxaren basiera ofiziala atzo izan bazen ere, joan den asteazkenean egin zen irekiera ekitaldia Astigarragako sagardotegi batean. Eta Andoni Egaña zein Sebastian Lizaso bertsolariek izan zuten sasoialdiko lehen txotxa dastatzeko pribilegioa. Sagardoa.

Olinpotik sortutako edari mirezgarria baltz bezala, eguzkiaren errainuek gozoki eta emeki berotutako sagarrak emandako zukuak da. Hori-berdeska kolorekoa, eta euskaldunok ia gurru egiten duguna. Sagardogileen esanetan, atzeratua dator aurten. Ilau da, behar baino gozo gebiago du oraindik. Baina laster etorriko da berera, denbora asko baino lehen leunduko da eta kalitate onekoa izango dela iragarri dute.



Andoni Egaña eta Sebastian Lizasok zabaldu zuten txotxeko denboraldia.

ANDER GILLENIA

MAIALEN LUJANBIO Bertsolaria

IRITZIA



«Burua altxako balu...»

dek tranbia moduko hori? BI-4173-CL?

Aiba! eta nora zihoaztik tranbiatik ateratako guzti horiek? Palaz...edo sagardotegira?

—Hik zer uste huan ba? Orain internazionalak dituk!

—Internazionalak!?

Baina...begira zak! Andreak! Andreak zer egiten ditek hor!

Berriz ere umeak marruz ariko dituk, holako emazte txarrak dauden bitartean! Ile eta gona motzak, muturra pinta-pinta eginda! Ez dituk goxuak izango!...eta aber, aber barrena...

—Barrenen, gaur ere, hi hintzan bezain alperrak dituk, denek eserita afaltzen diate!...hori bai, hiru egunez altxa gabeen ez dituk egoten...

—Altxa..., altza, zer? Besterik ez genian falta! Eta sagardo partez, txanpaina igual emango ditek...

—Ez dek hainbeste, gizona! Sagardotegiak, hire garaiko zerbait gordetzen ditek oraindik. Ba al dakik zer? Handik, denak bertso kantari ateratzen ditukela.

—Egon hadi isilik! Horiek bertsoak badituk, ni...Bueno, bueno, erotu ez diagu egin behar...Ni ez nauk engainatzen hori sagardotegia dela esanda! Gutxi egona niok ba, ez ezagutzeko...! Segi zak hemendik...

—Hori dek, hori! Don Geronimok ikusiko balizkik! Por zierito, kupel tarlean zeoken kristal griseko traste borobil haundi hori, zer dek?

—Joxe Manuel, kupel modernoak dituk!

—Hi Txirrita! Ba al dakik gure behekalde honetan, sagardo tenporada oraintxe hastekoa dekela?

—Bazeukat ba kuriosidadea zer martxa duten jakiteko!

—Ara, ara! Prezisamente oraintxe baditek zeozer. Jarri hadi begira!

—Motel, motel! Zer palazio dek hori?!

—Hori dek ba sagardotegia!

—Nola, hori? Jesus!! Hi; eta zer

—Barrenen, gaur ere, hi hintzan bezain alperrak dituk, denek eserita afaltzen diate!...hori bai, hiru egunez altxa gabeen ez dituk egoten...

Sagardoa, Idiazabalgo Gaztarekin, beti gozo.



Idiazabal Gazta Jatorrizko Izeneren Kontseilu Erregulatzaila